

3. Debako hondartza

3.1. Debako hondartza ren Ingurumen Kudeaketa Sistema ISO 14001

Debako Udalak -ingurumena errespetatzeak eta baliabide naturalak babesteak duen garrantzia kontuan hartuta- 2002. urtean, Agenda 21aren lehenengo pausoetan, Debako hondartzan, Ingurumena kudeatzeko sistema bat ezarri behar zela azpimarratu zuen, izan ere, udalerriaren protagonista naturala da hondartza. UNE-EN ISO 14001 nazioarteko arauak ezarritako baldintzetan oinarritzea hautatu zen. 2003ko maiatzean lortu zuen zegokion ziurtagiria, zirtagiria hori lortzen zuen Euskal Herriko hirugarren hondartza izan zen.

Ingurumena kudeatzeko sistema hori tresna egokia da, hondartza eta ingurunearen hobekuntzan era sistematiko batean lan egiteko. Kostaldearen egoera eta zerbitzuen etengabeko hobekuntzan aurrerabide bat da.

Bainuko uraren kalitatea

